# ULTZAMA ALDEKO GIZARTE ZERBITZUETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO II. PLANA 2017-2022

2017ko martxoa

# AURKIBIDEA

1. SARRERA.........................................................................3
2. ARAU-ESPARRUA..........................................................................4
3. METODOLOGIA.............................................................................5
4. EGITURA...........................................................................................6
5. JARDUKETAK.............................................................................12
6. ABIAN JARTZEKO, JARRAIPENA EGITEKO ETA EBALUATZEKO SISTEMA...........................................................................48

1. ERANSKINA: JARRAIPEN ETA EBALUAZIO FITXAK ...............................51

Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, aho batez, onartu zuen 2017ko irailaren seian.

Aholkularitza:

equala
Consultoría Social
Aholkularitza Soziala
www.equala.es

Diseinua: Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

## 1. SARRERA

Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea Anue, Atetz, Basaburua, Lantz, Odieta eta Ultzamako udalerriek osatzen dute, eta urteak daramatza lanean berdintasunaren esparruan.

2004. urtean azterlan bat egiteko beharra sortu zen bailarako emakumeen egoera eta haien beharrak ezagutzeko eta berdintasunari buruzko balantzea egiteko. **Diagnostiko** horrek agerian utzi zuen zeinen premiazkoa zen hausnarketa politiko eta tekniko bat sustatzea, bailarako gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna bultzatzeko neurriak eta konpromisoak hartze aldera.

2008an hasi zen idazten Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko emakumezkoen eta gizonezkoen **Berdintasunerako I. Plana**

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren esparruan eginiko lanean, Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hainbat ekintza egin ditu **bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa uztartzeko tokiko itunaren barnean,** ituna sinatu zuten entitateen artean eztabaidatutako urteko proiektu batekin.

Era berean, berdintasun politikako batzordeak ere baditu (Mankomunitatea eta Basaburuko Udala), eta etengabeko komunikazio, koordinazio eta aholkularitza lana egiten du Basaburuko Basandereok eta Bilgune Feminista emakumeen elkarteekin, eta 2009az geroztik Berdintasun agentea dauka atal horren buru, Nafarroako Berdintasun Teknikarien Sarean parte hartzen duena.

**Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasunerako II. Planaren** helburua da heldu diren lau urteetan tokiko berdintasun politika definitzeko oinarria izatea.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak 2014an eginiko "**udalen berdintasun arloak planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea"** dokumentuan oinarriturik idatzi da eta Nafarroako Berdintasun teknikariekin koordinaturik.

Ibilbide hori da Nafarroako Toki Entitateek genero berdintasunaren arloan jarraitu beharreko esku-hartze eredu berria.

**Consultoria Social Equala** aholkularitzak eman du Berdintasunerako II. Plana prestatzeko **laguntza teknikoa**.

## 2. ARAU-ESPARRUA

Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunaren arloan araudi zabala dago, giza-eskubideen defentsan kokaturiko printzipio juridiko unibertsal gisa.

Hona hemen erreferentziazko arau garrantzitsuenetako batzuk:

- **Nazioartekoa:** Nazio Batuen Ituna (1945). Nazio Batuen Emakumezkoaren kontrako diskriminazio modu guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (1979).
- **Europar Batasuna:** Erromako Ituna (1957). Amsterdameko Ituna (1997).
- **Estatukoa:** 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 22koa, Genero Indarkeriaren Kontrako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako.
- **Nafarroa:** 33/2002 Foru Legea, azaroaren 28koa, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeari buruzkoa. 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeenganako indarkeriaren kontra ekiteko.

## 3. BERDINTASUN PLANA EGITEKO METODOLOGIA

Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako II. Plana emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko erronka nagusiei buruzko analisi eta hausnarketa prozesu batetik sortu zen.

Berdintasunerako II. Plan honen prestaketa eta azken idazketa lanetan maila politiko, tekniko eta elkarteetako hainbat pertsonak parte hartu dute.

Plana prestatzeko, lehenik eta behin, aurreko Berdintasun Planaren ebaluazio prozesuan ateratako ondorioak aztertu dira.

Bigarrenik, maila politiko, tekniko eta elkarteetako jendeari eginiko banakako elkarrizketak egin dira.

Eta, azkenik, hiru **elkarrizketa talde** egin dira:

- Ultzamako Mankomunitateko politikariak
- Teknikariak
- Emakumeen elkarteak

Prozesu osoan **lan, segimendu eta koordinazio bilerak** egin dira Berdintasun agentearekin.

## 4. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA

Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko emakumezkoen eta gizonezkoen arteko Berdintasun Plana egin da Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (Nafarroako Gobernuak) eginiko "**udalen berdintasun arloak planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea"** dokumentuan oinarriturik eta Nafarroako Berdintasuna teknikariekin koordinaturik.

II. Plana 2017an egin da, eta berdintasun politikak abian jartzeko eta garatzeko jarduna sistematizatzeko oinarritzat har daiteke, emakume guztien ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko asmoarekin.

Ibilbidean adierazten den bezala, Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko **Berdintasun Arloa** izanen da berdintasunerako ibilbidea bultzatu, koordinatu eta kudeatzeko egitura, eta bere egitekoa ezinbestekoa izanen da berdintasunerako aldaketa eta eraldaketa prozesuak sortzeko herritarrengandik gertuen dagoen esku-hartze esparruan, kasu honetan mankomunitatean.

Genero berdintasuna ez da soilik arlo baten ardura; izan ere, zenbait interes talderi eragin behar dio (lehendakaritza eta talde politikoak, mankomunitateko idazkaritza, esku-hartzea, arloko arduradunak, langileen legezko ordezkariak, eta abar), arlo guztietako arduradunei baitagokie genero ikuspegia sartuz joatea, politika publiko guztien diseinatze, planifikazio eta ebaluazioan.

***Ibilbidearen esku-hartze eredua:***

II. Berdintasun Plana lau esparrutan egituratua da. Berdintasun arloak lauetan esku hartzen du eta, eskema honetan adierazten den bezala, horietako bakoitzean kontuan hartzen dira ildo estrategikoak, programak eta, azkenik, helburuak, jarduketak eta ebaluazio adierazleak.

***Egitura:***

Esku-hartze esparruak

↓

Ildo estrategikoak

↓

Programak

↓

Helburuak -Jarduketak- Ebaluazio adierazleak- Hobetu beharreko arloak identifikatzea

***Esku-hartze esparruak***

Plan honetan jasotzen denez, honako lau esparru hauetan garatzen du bere lana mankomunitateko berdintasun arloak: “Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitikoa eta balioen aldaketa”.

***Ildo estrategikoak eta lehentasun mailak:***

Esku-hartze esparru bakoitzaren lana planifikatzeko, hainbat ildo estrategiko ezartzen ditu ibilbideak. Horietako bakoitzak lan programa bakoitzaren norabidea markatuko du.

Gainera, haien ezarpenak zentzua izateko lehentasun maila desberdinak daude. Hiru dira esku-hartze maila progresiboak, eta ildoak horien arabera egituratzen dira.

I. esku-hartze maila betetzen ez bada, ez dira II. mailara pasatzeko baldintzak betetzen. II. maila neurri handi batean betetzen ez bada, komenigarria da III. mailara ez pasatzea. Betetze maila aurreratuenetan, maila apalagoetan abian jartzen ari diren baina jadanik sendotze fasean dauden jarduketak elkartzen dira.

I. ildo estrategikoan sartzen diren jarduketak I. lehentasun mailan daude, II. ildoan daudenak II. lehentasun mailan, eta horrela bata bestearen ondotik.

| I. esku-hartze esparrua: Toki Gobernamendua, genero-zeharkakotasuna | 2. Esku-hartze esparrua: Emakumeen aurkako indarkeria |
|---|---|
| 1. ildo estrategikoa: genero berdintasunerako udal egiturak.<br><br>2. ildo estrategikoa: gaikuntza tekniko eta politikoa toki entitatean genero ikuspegi integratua sartzeko.<br><br>3. ildo estrategikoa: udal lanen prozedurak emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipiotik.<br><br>4. ildo estrategikoa: genero berdintasuna udalerriaren edo/eta lurraldearen garapen iraunkorraren zati gisa. | 1. ildo estrategikoa: emakumeen kontrako indarkeria toki entitatean.<br><br>2. ildo estrategikoa: indarkeriarik gabeko bizitza emakumeendako |
| **3. Esku-hartze esparrua: Zaintza, erantzunkidetasuna eta eginkizunak bateratzea** | **4. esku-hartze esparrua: Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitikoa eta balioen aldaketa** |
| 1. ildo estrategikoa: herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea emakumeen eta gizonen zaintza eta bizitza-pertsonala, lana eta familiaren kontziliazio erantzunkidearen etikaren garapenaren bidez.<br><br>2. ildo estrategikoa: toki entitateetan denboren, espazioen eta zaintzen kudeaketa eredu berriak. | 1. ildo estrategikoa: emakumeen herritartasun osoa, haien ahalduntzearen bidez.<br><br>2. ildo estrategikoa: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balio soziala, balio patriarkalen balio sozialen eraldaketaren bidez. |

***Lan programak:***

Ildo estrategiko bakoitzaren lan programek osatzen dute mankomunitatean eta mankomunitatetik berdintasuna bultzatzeko ekintza plana. Programa bakoitzean ezartzen dira helburuak, jarduketak eta helburu horien ebaluazio adierazleak.

***Jarduketak:***

Programa bakoitzean eginen diren jarduketa zehatzak daude.

***Urteko programazioak:***

Berdintasun arloak urteroko azken hiruhilabetekoan eginen duen "urteko programazio" baten bidez agertu eta zehaztuko da Berdintasun Plana, arestian aipaturiko lehentasun mailetan oinarrituta.

***Denbora muga eta aurrekontua:***

Berdintasun Plan honen iraupena lau urtekoa izanen da, 2017-2020, eta jarduketa bakoitzaren gauzatze-epea ezarriko da.

Era berean, "ebaluatzeko sistema" atalean, jarduketak ebaluatzeko epeak eta uneak ezarriko dira.

Berdintasun arloak urtero kontusail bat izanen du, gutxienez mankomunitateko aurrekontu osoaren %7.

*GRÁFICO RESUMEN*




*Laburpenaren grafikoa. Iturria: “Udalen berdintasun arloak planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea".*

| I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. ILDO ESTRATEGIKOA: GENERO BERDINTASUNERAKO UDAL EGITURAK | | | | | | |
| 1. programa. Genero berdintasunerako udal atalak eta unitateak | | | | | | |
| 1. programaren helburua:<br>• Mankomunitatean genero mainstreaming-aren estrategia bultzatu eta legitimatzeko baldintzak sortzea, genero berdintasuneko atala sendotuz | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. **Berdintasun atala** sendotzea, lehendakaritzaren menpe jarriz, eta giza- zein aurrekontu-baliabideez hornituz; atal horretatik sustatu eta koordinatuko dira mankomunitateak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloan izanen dituen jarduketak. | -Mankomunitateko berdintasun atala osatzen duten pertsona kopurua sexuaren arabera<br>-Maila, lanaldi eta kontratu motak<br>-Aurrekontu orokorrean Berdintasun atalari esleituriko portzentajea | -<br>LEHENDAKARITZA-BATZORDE POL. BERDINTASUNA | | | | |
| 2. Atalen arteko koordinaziorako mahai teknikoa abian jartzea, hortik mankomunitateko berdintasun estrategia prestatzeko eta genero mainstreaning-a, berdintasun plana eta urteroko lan-programak bultzatzeko. | -Urtean eginiko bilera kopurua, bertaratuen kopurua, atala eta sexua. | BERDINTASUN ATALA BERDINTASUNA | | | | |
| 3. Parte-hartzea handituko duten jarduketak abian jartzea, batetik **kontzejuena** eta, bestetik, **gizonena** Berdintasun Batzorde Politikoan eta atalen arteko koordinazio teknikoko mahaian. | -Horiek osatzen duten kide kopurua sexuaren eta kontzejuen arabera | -<br>LEHENDAKARITZA-BATZORDE POL. BERDINTASUNA | | | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | -Urteroko igoeraren portzentajea | | | | | |
| 4. Berdintasun Plana zabaltzeko estrategiak diseinatzea (eta beste jarduketa batzuena berdintasun atalean) komunikazio tresna originalen eta eraginkorren bidez jendearengana iristeko. | -Eginiko hobekuntzak | BERDINTASUN ATALA BERDINTASUNA | | | | |

<table>
<tr><td colspan="7">I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna</td></tr>
<tr><td colspan="7">2. ILDO ESTRATEGIKOA: MANKOMUNITATEAN GENERO MAINSTREAMING-AREN ESTRATEGIA SARTZEKO GAIKUNTZA TEKNIKO ETA POLITIKOA.</td></tr>
<tr><td colspan="7">2. programa, mainstreaming-a edo genero ikuspegi integratua sartzeko prestakuntza espezializatua.</td></tr>
<tr><td colspan="7">2. programaren helburuak:<br>• Baldintzak sortzea Mankomunitateko politikoek eta teknikariek mankomunitatean mainstreaming inplementatzen lagundu ahal izan dezaten.<br>• Mankomunitateko teknikariak trebatzea haien ataletatik eta erantzukizunetatik genero ikuspegi integratua sar dezaten.</td></tr>
<tr><td>JARDUKETAK</td><td>Segimendu adierazleak</td><td>Atala Arduraduna</td><td>2017</td><td>2018</td><td>2019</td><td>2020</td></tr>
<tr><td>1. Politikoendako etengabeko prestakuntza plan bat prestatu eta abian jartzea, mankomunitatean genero mainstreamin-a aplikatzearen edukiei eta eraginari buruz.</td><td>-Eginiko dokumentua<br>-Urtean eman diren prestakuntza orduen kopurua, sexuaren arabera atal bakoitzean</td><td>-BERDINTASUN ATALA<br>-BATZORDEA BERDINTASUN POL.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>2. Politikoendako etengabeko prestakuntza plan bat prestatu eta abian jartzea, mankomunitatean genero mainstreamin-a aplikatzearen edukiei eta eraginari buruz.</td><td>-Eginiko dokumentua<br>-Urtean eman diren prestakuntza orduen kopurua, sexuaren arabera atal bakoitzean</td><td>-BERDINTASUN ATALA<br>-BERDINTASUN BATZORDE POL</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

| I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. ILDO ESTRATEGIKOA: UDAL LANEN PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO TRATU- ETA AUKERA-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOTIK. | | | | | | |
| 3. programa. Genero ikuspegia mankomunitateko arauen produkzioan, planetan, programetan eta proiektuetan, garrantzi eta eragin handikoa | | | | | | |
| 3. programaren helburua:<br>• Bermatzea mankomunitatetik bultzatzen diren arauek, planek, programek eta proiektuek ez dietela emakumeei eta gizonei modu baztertzailez eragingo. | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. **Datuak biltzeko** sistema eta prozedura informatikoak egokitzea sexuz bereizita lortu ahal izateko. | -Eginiko hobekuntzak | -BERDINTASUN ATALA<br>-INFORMATIKA ATALA | | X | | |
| 2. Mankomunitatean dauden edo egiten diren azterlan, ikerketa, txosten eta informazio estatistikoetan **sexuaren adierazlea** sartzea, mankomunitateko kudeaketa prozesuez arduratzen diren informazio teknologiaren enpresak konprometituz administrazioaren modernizazioan, eta nahitaezko betekizun gisa aztertu ahal izateko arau, plan, programa edo proiektu horiek nola bereizten duten generoa. | -Egiten diren dokumentu guztien arabera, zenbatek jasotzen duten sexuaren adierazlea. | ATAL GUZTIAK | | X | | |
| 3. Toki arautegian genero eraginari buruzko txostenak egiteko prozedura baten diseinua, baita eskualderako garrantzi handia duten planetan, programetan eta proiektuetan erreferentzia gisa INAItik eginiko prozedurari jarraikiz. | -Eginiko dokumentua | BERDINTASUN ATALA | | | X | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4. Eskualdeko arautegia onetsi baino lehenagoko genero eraginari buruzko txostenak egin, baita mankomunitatean garrantzi eta eragin handia duten plan, programa eta proiektuenak. | -Eginiko dokumentu guztien arabera, zenbatek duten genero eraginaren txostena. | ATAL GUZTIAK | | | | |

| I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. ILDO ESTRATEGIKOA: UDAL LANEN PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO TRATU- ETA AUKERA-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOTIK. | | | | | | |
| 4. programa. Aurrekontuaren plangintza eta ebaluazioa | | | | | | |
| 4. programaren helburuak:<br>• Tokiko Berdintasun politikak bultzatzeko baldintzak sortzea.<br>• Mankomunitateko aurrekontuaren distribuzioak emakumeei eta gizonei modu desberdinez edo baztertzailez eragiten dien aztertzea.<br>• Mankomunitateko aurrekontua zuzenago izan dadin laguntzea. | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. Aurrekontu espezifikoa ezartzea, aurrekontu orokorraren %7 baino txikiagoa ez dena, mankomunitatean berdintasunaren aldeko jarduketak bultzatzeko. | - Mankomunitatearen urteko aurrekontuan genero berdintasunerako dagoen portzentajea. | - LEHENDAKARITZA. -BATZORDEA POL BERDINTASUNA | | | | |
| 2. Mankomunitateko aurrekontuak edo horren kontusail baten batek duen genero berdintasunaren eraginari buruzko txostena egitea. | -Urteko aurrekontuak duen genero eraginaren txostena izatea. Aurrekontuko kontusail baten batek duen genero eraginaren txostena izatea. | -KONTU-HARTZAILETZA ATAL GUZTIAK | | | | |

| I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. ILDO ESTRATEGIKOA: UDAL LANEN PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO TRATU- ETA AUKERA-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOTIK. | | | | | | |
| 5. Programa. Langileen kudeaketan genero ikuspegia sartzea. | | | | | | |
| 5. programaren helburua:<br>• Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea mankomunitateko langileen hautaketa eta igoera prozesuetan, baita langileen kudeaketako politika orokorrean. | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. Udaleko plantilla organikoaren sexuen araberako distribuzioa jasoko duen urteko **txosten bat** prestatu eta zabaldu; txosten horretan jasoko dira, besteak beste, kontratu motak, lanaldiak, mailak, soldatak eta osagarriak, eta langileen igoera prozesuak;<br>baita beste gai batzuk ere, hala nola, emakumeen eta gizonen soldaten arteko aldea, banantze horizontala eta bertikala, eta abar. | -Prestatu eta zabaldu den dokumentua. | -Giza Baliabideak<br>-BERDINTASUN ATALA | | | | |
| 2. Txosten horretan oinarriturik, genero ezberdintasun eta bazterkeria egoerak prebenitzeko eta zuzentzeko **jarduketak** abian jartzeko aukera emanen duten **hobetu beharreko arloak** identifikatzea. | -Identifikatu diren hobetu beharreko arloak<br>-Bultzatu diren jarduketen kopurua eta motak. | -Giza Baliabideak<br>-BERDINTASUN ATALA | | | | |
| 3. Mankomunitatean egin diren **langileen kudeaketako prozesuak (**langileen hautaketa eta igoera, lan osasuna, bateratzea, eta abar) aztertu ondoren, **txosten bat** egitea. eta, gero, genero irizpideak sartzea. | -Eginiko dokumentua<br>-Eginiko hobekuntzak | -Giza Baliabideak<br>-BERDINTASUN ATALA | | | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4. Mankomunitatean gerta daitezkeen **sexuagatiko jazarpen** egoerak prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa egitea. | -Eginiko dokumentua | -BERDINTASUN ATALA | | | | |

| I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. ILDO ESTRATEGIKOA: UDAL LANEN PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO TRATU- ETA AUKERA-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOTIK. | | | | | | |
| 6. programa. Informazioaren kudeaketa eta komunikazio politika. | | | | | | |
| 6. programaren helburuak:<br>• Mankomunitateko lanean eta herritarrekiko komunikazioan hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiltzea.<br>• Berdintasunari buruzko informazioa mankomunitateko langileengana eta oro har herritarrengana iristeko baldintzak sortzea. | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. Mankomunitateko **hizkuntza** eta irudi ez sexistak erabiltzeko **araudia eta prozedurak** prestatzea. | -Eginiko dokumentuak | BERDINTASUN ATALA | | | | |
| 2. **Inprimakiak,** plantillak eta administrazioko gainerako dokumentuak **egokitzea** hizkuntza ez sexista erabiltzeko. | -Eginiko hobekuntzak | ATAL GUZTIAK | | | | |
| 3. **Web gune espezifiko bat sortzea** Mankomunitateko berdintasun atalaren edukiei eta jarduketei buruzko informazioa emateko. | -Sorturiko web gunea | -BERDINTASUN ATALA INFORMATIKA ATALA | | | | |

| I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. ILDO ESTRATEGIKOA: UDAL LANEN PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO TRATU- ETA AUKERA-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOTIK. | | | | | | |
| 7. programa. Kontratazioa, diru-laguntzak eta hitzarmenak. | | | | | | |
| 7. programaren helburua:<br>• Mankomunitateko kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan genero ikuspegia sartzea. | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. Mankomunitateko **kontratazioetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan** generoa duen tratamendua aztertuko duen **txostena** prestatzea. | -Eginiko dokumentua | BERDINTASUN ATALA | | | | |
| 2. Mankomunitateko kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan generoko klausulak sartzeko **prozedura** prestatzea. | -Eginiko dokumentua | BERDINTASUN ATALA | | | | |
| 3. **Lan teknikoko taldearendako etengabeko prestakuntza.** Mankomunitateko kontratuak, diru-laguntzak eta hitzarmenak egin eta kudeatzeko arduradunek osaturiko lan talde teknikoari etengabeko prestakuntza ematea horietan genero ikuspegia sar dezaten. | -Eman diren prestakuntza orduen kopurua, sexuaren arabera atal bakoitzean | ATALEN ARTEKO MAHAI TEKNIKOA Teknikoa. | | | | |
| 4. Mankomunitateko kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan generoko klausulak **sartzea.** | -Mankomunitateko kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenen artean generoko klausulak sartu dituztenen kopurua.<br>-Mankomunitateko | ATAL GUZTIAK | | | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan sartu diren generoko klausulen kopurua eta motak. | | | | | |

| I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. ILDO ESTRATEGIKOA: UDAL LANEN PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO TRATU- ETA AUKERA-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOTIK. | | | | | | |
| 8. programa. Emakumeen eta gizonen parte-hartze eta ordezkaritza orekatua. | | | | | | |
| 8. programaren helburua:<br>• Udal eskumeneko edozein "multzotan" emakumeen eta gizonen arteko banaketa orekatuaren printzipioa gauzatzea, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunari buruzko 3/2007 Legeak banaketa orekatuaz egiten duen definizioaren arabera. | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. Lan batzorde iraunkorretan, epaimahaietan, sari-emateetan, eta abarretan, **banaketa orekatuari buruzko irizpideak** ezartzea. | -Eginiko hobekuntzak | BERDINTASUN ATALA | | | | |

<table>
<tr><th colspan="7">I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna</th></tr>
<tr><th colspan="7">4. ILDO ESTRATEGIKOA: GENERO BERDINTASUNA UDALERRIAREN EDO/ETA LURRALDEAREN GARAPEN IRAUNKORRAREN ZATI GISA.</th></tr>
<tr><th colspan="7">1. programa. Lurraldeko edo udalerriko generoaren azterlan sozioekonomikoa.</th></tr>
<tr><th colspan="7">1. programaren helburua:<br>• Lurraldean generoaren azterlan sozioekonomikoa sartzeko baldintzak sortzea</th></tr>
<tr><th>JARDUKETAK</th><th>Segimendu adierazleak</th><th>Atala Arduraduna</th><th>2017</th><th>2018</th><th>2019</th><th>2020</th></tr>
<tr><td>1. Lurraldearen garapen sozioekonomikoa eta ingurumenari eusteko helburu duten beste erakunde batzuekin elkarlanean, genero ikuspegia aztertzeko informazio eguneratua izateko mekanismoak bultzatzea.<br><br>(Ingurumenari eustea ingurumeneko ondasun eta zerbitzuen administrazio eraginkor eta zentzudunarekin lotuta dago)</td><td>-Bultzatu diren jarduketen kopurua eta motak.</td><td>-BERDINTASUN ATALA<br>-CEDERNA-GARALUR</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

| I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4. ILDO ESTRATEGIKOA: GENERO BERDINTASUNA UDALERRIAREN EDO/ETA LURRALDEAREN GARAPEN IRAUNKORRAREN ZATI GISA. | | | | | | |
| 3. programa. Lurraldearen garapen iraunkorrerako proiektu, plan eta jarduketa garrantzitsuetan genero ikuspegia sartzea | | | | | | |
| 3. programaren helburua:<br>• Ekarpena egitea udalerriko edo lurraldeko garapen estrategiak genero berdintasunean eragin positiboa izan dezan | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. **Lurraldeko eragile garrantzitsuei aholkularitza ematea** genero ikuspegia sar dezaten sektoreko planetan, udal proiektuetan, garapen estrategietan, eta abarretan. | -Bultzatu diren jarduketen kopurua eta motak. | BERDINTASUN ATALA | | | | |

| I. ESKU-HARTZE ESPARRUA: Toki Gobernamendua eta Genero-zeharkakotasuna | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4. ILDO ESTRATEGIKOA: GENERO BERDINTASUNA UDALERRIAREN EDO/ETA LURRALDEAREN GARAPEN IRAUNKORRAREN ZATI GISA. | | | | | | |
| 4. programa. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko parte-hartzea lurraldeko baliabide eta zerbitzuetan | | | | | | |
| 4. programaren helburua:<br>• Zuzentzeko asmoarekin, lurraldeko baliabide eta zerbitzuetako diseinu, kudeaketa edo parte-hartzean gerta daitezkeen genero desberdintasun edo baztertze egoerak nabarmentzea | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. Emakumeen eta haien erakundeen parte-hartzea bultzatu eta bideratzea sektoreko planen eta lurraldeko garapen estrategien diseinuan, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eragiten dioten plan eta proiektuen diseinuan ere. | -Bultzatu diren jarduketen kopurua eta motak. | -BERDINTASUN ATALA<br>-CEDERNA-GARALUR | | | | |
| 2. Lurraldeko zerbitzuak (garraio, osasuna, prestakuntza eta enplegua, diru-laguntzak, Tic- delakoetarako sarbidea, eta abar) emakumeen eta gizonen beharretara eta errealitateetara egokitzapenari buruzko azterketa eta kudeaketa. | -Bultzatu diren jarduketen kopurua eta motak. | -BERDINTASUN ATALA<br>-CEDERNA-GARALUR | | | | |
| 3. Abian jartzea **zerbitzuen komunikazio eraginkorrarekin eta haien hedapen hobearekin** loturiko berariazko jarduketak, kontuan hartuta bereziki eskualdearen ezaugarriak direla-eta emakumeek dituzten zailtasunak. | -Bultzatu diren jarduketen kopurua eta motak. | -BERDINTASUN ATALA<br>-CEDERNA-GARALUR | | | | |
| 4. Emakumeek gida-baimena lortzeko eta autoa erosi/erabiltzeko aukerak areagotuko dituzten programa espezifikoak diseinatzea. | -Bultzatu diren jarduketen kopurua eta motak. | -BERDINTASUN ATALA<br>-CEDERNA-GARALUR | | | | |

| 2. ESKU-HARTZE ESPARRUA Emakumeen kontrako indarkeria | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. ILDO ESTRATEGIKOA – EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MANKOMUNITATEAN | | | | | | |
| • 1. Programa. Emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez mankomunitateko edo lurraldeko baliabideen arteko koordinazioa eta emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, biktimak artatzeko eta arazoari aurre egiteko aukera ematen duten arloak detektatzea. | | | | | | |
| 1. programaren helburuak:<br>• Mankomunitatearen jarduera esparruan Emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez dauden baliabideen arteko koordinazio eraginkorra laguntzea, horretarako mekanismo egokiak sortuz.<br>• Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, biktima artatzeko eta arazoari aurre egiteko jardunean aurrerapausoak ematen lagunduko duten hobekuntza arloak ezartzea. | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. Prebentzio, atzemate, jarduketa eta deribaziorako berariazko protokolo bat diseinatu eta abian jartzea, tokiko koordinazioaren prozedura definitzeko genero indarkeriaren indarreko legediaren eta Nafarroako emakumeen kontrako indarkeriaren artatze eta prebentzioan koordinazio eraginkorrerako erakunde arteko hitzarmenaren markoan. | -Eginiko dokumentua | -BERDINTASUN ATALA<br>-OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA | | | | |
| 2. **Talde tekniko** bat bultzatzea genero indarkeriaren berariazko protokoloaren segimendua eta ebaluazioa egiteko. | -Talde teknikoak urte bakoitzean eginiko bilera kopurua, bertaratuen kopurua, atala eta sexua. | -BERDINTASUN ATALA<br>-ATAL GUZTIAK | | | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. **Koordinazioa,** genero indarkeriaren arloan esku-hartze zuzena dutenekin, kasuen artatze eta aurre egite lanetan hobetzeko behar diren informazioa eta aholkularitza emateko, beharrezkoa denean. | -Bultzatu diren jarduketen kopurua eta motak. | -BERDINTASUN ATALA<br>-OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA | | | | |

| 2. ESKU-HARTZE ESPARRUA Emakumeen kontrako indarkeria | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. ILDO ESTRATEGIKOA – EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MANKOMUNITATEAN | | | | | | |
| • 2. programa. emakumeen kontrako indarkeriaren arloan lan egiten duten mankomunitateko langileak trebatzea | | | | | | |
| 2. programaren helburuak:<br>• 2. programa. emakumeen kontrako indarkeriaren arloan lan egiten duten mankomunitateko langileak trebatzea.<br>• Emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatearen aurrean Mankomunitatearen esku-hartze egokia bermatzea.<br>• Emakumeen kontrako indarkeria deuseztatzea agenda politikoan sartzea. | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. **Diagnostiko** bat egitea atzemateko zein trebakuntza-beharrak dauden Mankomunitatean emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan. | -Eginiko dokumentua | -BERDINTASUN ATALA<br>-OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA | | | | |
| 2. Mankomunitatean **etengabeko prestakuntza-plan** bat diseinatu, abian jarri, inplementatu eta ebaluatzea, emakumeen kontrako indarkeria atzematea, hari buruzko informazioa, artatzea eta deribatzea hobetzeko. | -Eginiko dokumentua<br>-Mankomunitateko langileek prestakuntzan emandako orduak, sexu eta arloen arabera. | -BERDINTASUN ATALA<br>-OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA | | | | |
| 3. Mankomunitateari edo/eta lurraldeari emakumeen kontrako indarkerian eragiten dioten errealitate zehatzei buruz **mintegi edo jardunaldi espezifikoak** egin eta bertan parte hartzea, INAIrekin eta beste toki entitate edo instituzio batzuekin elkarlanean. | -Bultzatu diren jarduketen kopurua eta motak. | -BERDINTASUN ATALA<br>-OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA | | | | |

| 2. ESKU-HARTZE ESPARRUA Emakumeen kontrako indarkeria | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. ILDO ESTRATEGIKOA – EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MANKOMUNITATEAN | | | | | | |
| 3. programa. Mankomunitateak emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko dituen baliabideak hurbiltzea, lurraldeko jendeak ezagutzen dituela, emakumeengana iristen direla eta genero indarkeriaren arazoak dituzten bizilagunei egokitzen direla ziurtatuz. | | | | | | |
| 3. programaren helburuak:<br>• Emakumeei bermatzea genero indarkeriari aurre egiteko dauden zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazioa izateko eskubidea.<br>• Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko dauden baliabide eta zerbitzuak lurraldean gai horrek dituen ezaugarrietara eta berezitasunetara egokitzea. | | | | | | |
| JARDUKETAK | Segimendu adierazleak | Atala Arduraduna | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
| 1. Genero indarkeriari aurre egiteko dauden **baliabideen mapa** mankomunitatearen ezaugarrietara egokitu eta zabaltzea, behar diren eta horretarako egokienak diren komunikabide eta hizkuntza erabiliz. | -Eginiko eta zabalduriko hobekuntzak | -BERDINTASUN ATALA<br>-OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA | | | | |
